

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure enpresan hainbat baliabide ditugu, fisikoak esate baterako. Gure baliabideetako bat gure lantoki eta biltegia izango da, hau da, gure lokala. Hemen gure produktua eraiki eta biltegitratuko dugu, horregatik oso garrantzitsua da, toki txukun, egokia eta profesionala izatea.

Beste baliabide fisiko bat erosten dugun egurra, eta imana izango da, hau da, atea egiteko beharrezko lehengaiak. Biltegi txikia edukitzen saiatuko gara, eskaeren arabera, horrela, almagazendak kostuak gutxituko ditugu eta lehengaiak ondatzeko aukerak jetsiko ditugu. Biltegian "First In First Out" metodoa erabiliko dugu. Hau da, biltegian lehenengo sartzen diren izakinak izango dira lehenak ateratzen, horrela gure produktuak zahartzea eragotziko dugu.

